



zaraobe
institutua

73 URTE ESKUALDEAN
56 zenbakia 2025eko uztaila



**“Landareen eta Balioen artean:
Gela Egonkorraren Magia.”**

**“Entre Plantas y Valores:
La Magia del Aula Estable”**

GELO EGONKORRA BARATZA



Gure baratzeak gela egonkorrari bizia ematen dio!
Ereiten, zaintzen eta ikasten dugun proiektu bat!

Ikasturte honetan ere, Gela Egonkorrean, ilusio handiz aritu gara proiektu berezi bat lantzen: gure eskola-baratza. Esperientzia honen bidez, naturari, talde-lanari eta ingurunea zaintzearen garrantziari buruz ikasten dugu.

Hiru gune desberdin ditugu:

- Negutegi txiki bat,
- Negutegi handi bat,
- Eta aire zabaleko bankalen gune bat.

Horietan, fruta eta barazkiak eta loreak erein ditugu, guztion artean erosten ditugun hazietatik abiatuta. Astero denbora ematen dugu ureztatzen, belar txarrak kentzen, gure landareak nola hazten diren ikusten... baita biltzen ere!

Proiektuaren zatirik zirrargarrienetako bat bildutako produktu batzuk sukaldean erabiltzea izan da, astero egiten ditugun tortilei, guk ereindako eta jasotako tipulak gehitu ditugularik. Guk geuk landutako osagaiekin errezeta bat prestatzea bezalakorik ez dago.

Baratze horrek, landatzen ez ezik, pazienteak eta arduratsuak izaten eta elikagai bakoitzaren atzean dagoen ahalegina baloratzen ere irakasi dugu. Oso harro gaude egindako lanaz, eta proiektu hau zaintzen jarraituko dugu, pixkanaka, gurekin batera loratzen ari baita!



¡Nuestro huerto da vida al Aula Estable!

¡Un proyecto que sembramos, cuidamos y del que aprendemos!

Este curso, en el Aula Estable, hemos trabajado con gran ilusión en un proyecto muy especial: nuestro huerto escolar. A través de esta experiencia, aprendemos sobre la naturaleza, el trabajo en equipo y la importancia de cuidar el entorno.

Disponemos de tres espacios distintos:

- Un pequeño invernadero,
- Un invernadero grande,
- Y una zona de bancales al aire libre.

En ellos, hemos sembrado frutas, hortalizas y flores, partiendo de las semillas que compramos entre todos. Cada semana dedicamos tiempo a regar, quitar malas hierbas, observar cómo crecen nuestras plantas... ¡e incluso a cosechar!

Una de las partes más emocionantes del proyecto ha sido poder utilizar algunos de los productos recogidos en la cocina, añadiendo las cebollas que sembramos y recolectamos a las tortillas que preparamos cada semana. No hay nada como preparar una receta con ingredientes cultivados por nosotros mismos.

Este huerto no solo nos ha enseñado a plantar, sino también a ser pacientes, responsables y a valorar el esfuerzo que hay detrás de cada alimento. Estamos muy orgullosos del trabajo realizado y seguiremos cuidando este proyecto que, poco a poco, florece con nosotros.

MRR FUNTSAK BERLINERA BIDAIA



Aurten **mekatronika industrialeko goi mailako ikasleak** Berlinera joan dira bertoko ekoizpen teknikak ikusi eta ikasteko, baita bertako historia sakona ezagutzera ere.

Berton lehen eta bigarren mailako ikasleek Berlineko museo teknologikoa bisitatu dute eta BMW-ren motoen produkzio prozesu osoa ikusi dute. Horretaz gain, Berlinek daukan itzelezko historia ezagutu dute bisita ezberdinen bidez eta bere hain aktiboa den bizitzaz disfrutatu ere.

Azkenik, Sachsenhauseneko kontzentrazio zelaia bisitatu dute honek daukan oinarri historikoa ezagutzeko.



AURKIBIDEA

ZARAOBE

Gela egonkorra.....2

MRR funtsak

Berlinera bidaia.....3

GURE PROIEKTUAK

Erasmus+ LH.....4

Erasmus+ LH Irakasleak.....7

DBH-BATX Erasmusak.....8

Erasmus+ DBH BATX Irakasleak....10

Hedatze.....11

Momentuak.....14

Ikasenpresa proiektua.....16

Amurrioko bankuak.....17

Ikaslab.....18

Altxaburua.....19

HNP:

Euskararen eguna eta

EUSKARALDIA.....20

San Tomas eguna.....21

LEHIAKETAK

Literatur lehiaketa.....22

JUBILAZIOAK.....24

ZARAOBETARRAK.....27

Ohorezko matrikulak.....27

BATXI PROMOZIOAK.....28



LH ERASMUS+



AIMAR GIL SOLAUN,
(Krakovia, Polonia)

"Erasmus hau oso esperientzia ona izan da arlo guztietan. Lanean oso ondo tratatu naute hizkuntzaren eta kulturaren arteko aldea asko errespetatzen dute, gainera jende askok ingelesez hitz egiten zuen eta komunikazioa oso erraza da laneko kide guztiekin, bizilekuko kideekin harremana bikaina izan da"



CARLOS REBOLLO LOZANO,
(Bologna, Italia)

"Italian Erasmus programa egiten ari nintzela, mekanizazio enpresa batean lan egiteko aukera izan nuen, eta horrek trebetasun tekniko eta profesional baliotsuak eskuratzeko aukera eman zidan. Fabrikazio-teknika berriak ikasi ahal izan nituen, makineriaren erabilera hobetu eta ekoizpen-prozesuak hobeto ulertu nazioartean. Gainera, esperientzia honek nire ingeles maila hobetzen eta Italiako lan kulturarekin ohitzen lagundu zidan. Oro har, esperientzia aberasgarria izan zen, pertsonalki zein profesionalki hazteko aukera eman zidana, nire aukerak zabalduz eta mekanizazioaren arloan nire lan-profila indartuz."



HEGOI URQUIJO,
(Reggio Emilia, Italia)

"Nire momentu hoberenak izan dira lagun berriak ezagutu ditudanean, lekuak bisitatzera joan naizenean (Roma, Milán, Venecia, Florencia eta Polonia) eta bereziki politena erresidentzian agurra eman zidatenean, beraien kamiseta sinatua oparitu zidaten eta pastela eta champán botilakin agurra eman zidaten, betirako eramango dudana momentua."





IZARO RODRIGUEZ,
(Reggio Emilia, Italia)



Co-funded by
the European Union

"Nire Erasmus esperientzia Italian ahaztezina izan da, ikasketaz, erronkez eta betiko gordeko ditudan unez beteriko etapa bat. Herrialdearen iparraldean bizitzeak paisaia zoragarriak, tradizioz beteriko kultura eta maitemintzen zaituen gastronomia ezagutzeko aukera eman dit. Ez da beti erraza izan, lana eta etxetik urruneko bizitza uztartzea zaila izan baita, baina egokitzen, une txikiak baloratzen eta nire burua hobeto ezagutzen ikasi dut.

Familia bezala sentitzen diren lagunak egin ditut eta uste baino gehiago hazi naiz. Italia nire parte bihurtu da, eta abentura honek nire bizitzan aurretik eta ondoren bat markatu du".




NAIARA TELLO, LOHIZUNE ETXEBARRIA,
ONINTZE PALACIOS, IZARO ESTAVILLO
ETA ALAZNE ALVAREZ,
(Lisboa, Portugal))

Lohizune eta Naiara, Gizarte Integrazio goi-mailako ikasketak egiten ari gara eta QE (Quinta Essencia) elkarteko taldeko kide izan gara, elkarte hori adimen-desgaitasuna duten pertsonen arreta eta inklusioan aritzen da.

Bestalde, Onintze, Alazne eta Izaro, mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako arreta erdi-mailako ikasketak egiten ari gara eta burmuineko paralisia duten pertsonak zaintzen espezializatutako zentro batean egin ditugu praktikak.

Arlo profesionalean, ikasketa akademikoetan eskuratutako ezagutzak aplikatzeko eta sendotzeko aukera izan dugu, bakoitza bere kolektiboari dagozkion eginkizunetan lagunduz.

Alde pertsonaletik, esperientzia hau erronka handi bat izan da eta horrek heltzeko aukera eman digu.





XABIER EREÑO,
(Eisenhowerwe, Herbehereak)

“Ez nuen espero hau esango nuenik baina oso guztura eta pozik egon naiz lanean. Gauza berri asko ikasi ditut, lankideekin oso guztura egon naiz eta haiekin eskertuta nago, beti laguntzeko prest egon dira eta pasientsia handia izan dute nirekin.”

“Beste aldetik uste dut Erasmus egitea onuragarria dela bakoitzaren jakintza eta esperientziarako. Ez bakarrik lantegian baizik eta bizitza pertsonalean ere bai. Mundu berria ezagutzeko aukera bikaina da eta bakoitza bakarrik bizitzeko gaitazunak ikusteko.”



NEREA LUACES ETA AINHOA GONDRA,
(Järvenpää, Finlandia)

“Finlandian izan dugun esperientzia izugarria izan da. Kultura berri bat ezagutu dugu, sistema erabat desberdin batek nola funtzionatzen duen ikusteko aukera eman diguna, eta asko ikasi dugu horretaz eta etxean bezala sentiarazi egin gaituen jendearengandik, bai langileengandik, bai erabiltzaileengandik.”

“Finlandian egoteak ere mundua ezagutzeko aukera ematen dizu, bai herrialdea bera eta baita gertu dauden beste batzuk ere, gure kasuan, Suedia, Estonia eta Danimarka. Esperientzia ahaztezina izan da eta pena handiz agurtu genuen, baina oso pozik bizi eta ikasitakoagatik.”



ERASMUS+ LH (Irakasleak)



Zaraobeko eta Mendizabalako irakasleak Lituaniako Erasmus+ proiektu batean

BHI Zaraobe IES eta Mendizabala Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuko zortzi irakaslek Vilnius (Lituaniako hiriburua) Erasmus+ mugikortasun proiektu batean parte hartu dute berriki. Bertako hezkuntza-sistema sakon ezagutzea eta elkarlaneko harremanak estutzea izan dute helburu. Egonaldian zehar, irakasleek **Vilnius College** ospetsuaren hiru fakultate bisitatu dituzte:

- **Faculty of Electronics and Informatics:**
Teknologia berrien eta informatikaren arloko irakaskuntza-metodologiak ezagutzeko.
- **Faculty of Health Care:**
Osasun-prestakuntzaren ikuspegi praktiko eta teknologikoa lantzeko.
- **Faculty of Pedagogy:**
Arlo pedagogikoko ikuspegiak partekatzeko

Esperientzia ez da esparru akademikora soilik mugatu. Parte-hartzaileek aukera izan dute Lituaniako kultura, historia eta gastronomian murgiltzeko ere. Gizateriaren Ondare izendatutako Vilniuseko alde zaharreko kaleetan zehar ibili dira, eta, besteak beste, *cepelinai* eta *pink soup* bezalako plater tipikoak dastatu dituzte.

Gainera, ikasleen etorkizuneko mugikortasuna sustatzeko harremanak sendotu dituzte, hurrengo urteetan ikasleek ere Lituaniara joateko aukera izan dezaten.

Erasmus+ mugikortasun hau esperientzia aberasgarria izan da bai maila profesionalean, bai pertsonalean. Bi ikastetxeek hezkuntzaren nazioartekotzearekin eta Lanbide Heziketaren etengabeko hobekuntzarekin duten konpromisoa indartu dute, Europako beste errealitate batzuekiko zuzeneko harremanen bidez.

Artikulu honekin batera datozen argazkiek hezkuntza- eta kultura-esperientzia honen une esanguratsuenetako batzuk jasotzen dituzte.





ERASMUS+ DBH - BATX

2024-2025 ikasturtean, Erasmus+ programak mundua, berriro ere, Zaroibera hurbildu du. Gure ikasleek Alemaniara, Poloniara eta Frantziara bidaiatzeko aukera izan dute, kultura berriak ezagutzuz, hizkuntzak praktikatzuz eta lagun berriak eginez. Esperientzia bakoitza berezia izan da eta ikasleentzat bizitza osorako oroitzapen bihurtu da. Ikasitakoa eta bizitakoa gure ikasleen ibilbidean betiko geratuko da.

Gainera, Alemaniako eta Poloniako ikasle eta irakasleak gure artean hartzeko aukera izan dugu. Haiek hartzea gure kultura partekatzeke, gure herria erakusteko eta Europa mailako harremanak sendotzeko aukera paregabea izan da.

Truke hauek gure ikuspegia zabaltu dute eta gogorarazi digute ikaskuntza ez dela soilik gelan gertatzen. Gora Erasmus+ eta bizipen ahaztezinak!

POLONIA

DBH4.mailako ikasleak Polonian egon dira Meritum ikastetxearekin elkartruketa eginez. Programari esker hainbat leku ezagutzeko aukera izan dute: krakobia, Katowice, Auschwitzeko konzentrazio zelaia, Siemianowice eta Poloniako hegoaldeko Silesia eskualdea.

Jarraian Poloniako Auschwitz lan esparruko argazki bat, Krakoviako Wawel herensugearen ondoan beste bat eta bertako familiekin aireportuan ateratako argazkia.



ALEMANIA

Zaraobeko 1. batxilergoko ikasle batzuk Erasmus+ programan parte hartu dute 2024-25 kurtsoan eta Alemaniako institutu bateko ikasleekin egin ditzuzte harremanak eta mugikortasuna.

Alemaniarrek Amurriona etorri ziren martxoan eta guk Solingen herrira joan gara orain ekainan. Esperientzia aparta izan da bai ikasle bai irakasleentzat, kulturartekotasuna, hizkuntzak eta historia guztion artean ulertzeko eta partekatzeke. Ikasleak aukera paregabea izan dute eta asko aprobetxatu dute.

Oso pozik etorri ziren, pena handiarekin. Han egindako hainbat aktibidade (tirolinak, museoak, hiriak, institutuko bizitza, familiekin otorduak...) beraian inpaktu galanta eduki dute: heldutasuneranzko bidean aurrera joateko, ardura eta enpatia ere lantzeko...

Gure ikasleak hezi eta hazi egin dira zalantzarik gabe.

FRANTZIA (LÉZIGNAN-CORBIÈRES) 2024-2025:

Zaraobe BHI-n, apirilako 7tik 11ra, DBH 4. mailako eta 1. Batxilergoko frantzeseko ikasleak berriro ere Frantziara bueltatu dira. Hizkuntza eta kulturarako mugikortasun programaren barne, aste beteko bidai honek hainbat esperientzia eskeintzen dizkie gure ikasleei urtero. Ikasleek azaltzen duten bezala, *"hasieran etxetik urrun eta urduri sentitzen zara, jende eta hizkuntza desberdinak, arau eta jokaera desberdinekin, baina egunak pasa ahala, zu haietariko bat sentitzea lortzen dute eta gero ez duzu hona bueltatu nahi"*

Ibilbideak autobusean egin zituzten, gero handik leku batetik bestera mugitzeko ere erabili zutena. Autobusa haien artean beraien familiekin bizitzen zituzten esperientziak partekatzeko konfidantzazko txokoa bihurtu zen. Eta horrela, hainbat leku desberdin bisitatu zituzten Frantziako hego-ekialdeko zonaldea ezagutzeko: Erdi-Aroko Carcassone herria, bere harresi eta harrizko etxeekin ipun batetik ateratakoak bezala, Lagrasse herri txikia mendi artean bere antzinako zubi eta abadiarekin, eta Narbonne, ekialdeko kostaldeko hiri bat, Mediterraneo xarmarekin, guztiz desberdina Frantziako beste tokiekin konparatuz. Hiru kokapen hauen eta inguruko historian ere murgildu ziren egunetan zehar, zonaldeko kultura eta historia hobeto ulertzeko.

Ikasleek kanpoko txangoetaz disfrutatu zuten, beraien ikaskuntza berriak emozio positiboaz buztitzen. Baina Frantziako ikasleekin beraien institutu eta geletan ere sartu ziren. Frantzesaren eta gaztelania gogoratzeko, praktikatzeko eta gauza berriak ikasteko jolasak eta atazak egin zituzten. Hiztegi eta gramatika landu zen era ludikoan, gai sozial eta moralak ere landu zituzten talde txikietan, baita kirola egin zuten institutuko kanpus erraldoian zehar azken egunean. Azken bi egun hauetan, talde lanekin eta kirola egunarekin, izan zen taldetxoak TALDE bihurtu zirenean, urduritasuna eta zalantzak argitasun eta ongizate bihurtu zirenean. Lankidetzaren ereduak izan zen hemengo eta hango ikasleen artean. Bazkaltzeko orduan, kantuan bertan nola haien artean eseri eta komunikatzen ziren inolako helduen laguntzarekin zoragarria izan zen.

Azpimarratzekoa da Frantziako ikasle, irakasle eta familia egindako harrera ona. Gure ikasleek baita haiekin joandako irakasleek ere poz-pozik bueltatu ginen han jasotako ikaskuntzekin, han disfrutatutako esperientziekin eta bueltatzeko gura itzelekin. Pena handia eman zigun azken




egunean kantinatik ateratzea autobusean sartzeko eta jadanik hona bueltatzeko. Zalantzarik gabe, bizitzarako benetan garrantzitsua den hainbat gauza lortu genituen: aspertzeko ekiditzea eta besteekin disfrutatzen ikastea, kultura eta hizkuntzen desberdintasunetaz jabetzea eta komunikazio eta demokraziarako behar diren jarrerak trebatzea, baita hizkuntzen balio intrinsekoa azalaratzea mundu honetan lotura berriak zabalduz.

ERASMUS+ ITALIA (Irakasleak)

Apirilaren erdialdean, gure ikastetxeko bi irakaslek bidaia bat egin dute Italiako Piazzola sul Brenta eta Bassano del Grappa hirietara, Véneto eskualdean, Italian han mugikortasun-proiektu berri bat irekitzeko asmoz. Ekimen honen bidez, datorren ikasturteari begira, dagoeneko lortu da 24 ikasle italiar gure ikastetxera etortzea, eta, ikasturtearen amaieran, gure ikasle talde bat ere joango da Italiara, antzeko kopuruan.

Esperientzia honek aukera paregabea emango die ikasleei beste herrialde bateko kultura eta hezkuntza-sistema ezagutzeko, eta harreman akademikoak sendotzeko bi ikastetxeen artean.



“Esperientzia honek aukera paregabea emango die ikasleei”

“Todo lo aprendido formará parte del crecimiento y desarrollo de nuestros estudiantes”

These exchanges have not only broadened our horizons but also reminded us that learning goes far beyond the classroom. Everything our students have lived and learned will shape their growth and development.

Let's keep building bridges and memories across Europe!

Estos intercambios no solo han ampliado nuestros horizontes, sino que nos han recordado que el aprendizaje va mucho más allá del aula. Todo lo aprendido y vivido formará parte del crecimiento y desarrollo de nuestros estudiantes.

¡Seguimos construyendo puentes y recuerdos por toda Europa!



HEDATZE: 2024-2025 ikasturtean

Dagoeneko bost urte pasa dira DBHko ikasleei zuzendutako eskolaz kanpoko laguntza-proiektu hau abiatu genuenetik! Hauspoa izenez hasi zena, duela hiru ikasturtetik hona Hedatze bihurtu da: ikasleen garapen akademiko eta pertsonalerako funtsezko espazio bat.

2024-2025 ikasturtean zehar jarraitu dugu laguntza akademikoa eta aisialdiko jarduerak eskaintzen, eskola-orduetatik kanpo. Laguntza saioak honako irakasgaietan oinarritu dira: Matematika, Gaztelania, Euskara, Ingelesa, Fisika, Biologia, Historia eta Tekno.

Baina Hedatze ez da laguntza akademikora mugatzen: sormena, adierazpena eta gozamina lantzeko espazioak ere eskaini ditugu, urtez urte arrakastatsuak izaten ari diren tailer tematikoen bidez.

Eskerrak eman nahi dizkiegu 2024-2025 ikasturte honetan HEDATZE posible egin duten pertsona guztiei: ikasleei, irakasleei, familiei eta kolaboratzaileei —guraso elkarte (AMPA), Kate, atezainak, garbiketari-langileak—.



Irratia



Etxeko lanen txokoa



Puntu Morea (bizipena kontu kantari)



Eskulanak

LAGUNTZA ETA AISIALDIKO JARDUERAK:

- Irratia
- Murala eta graffiti
- Xakea
- Gitarra
- Santo Tomasen ospakizunerako prestaketa
- Herri Kirolak
- Kantu
- Speaking (4, 3-2 eta 2-1 mailak)
- Ping-Ponga
- Etxerako lanen txokoa
- Pickleballa-Tenisa
- Eskulanak
- Puntu Morea (kontu kantari)
- Frontenisa
- Euskal dantzak

HEDATZE: Curso 2024-2025

¡Cinco años ya desde que iniciamos este proyecto de apoyo extraescolar para estudiantes de la ESO! Lo que comenzó como Hauspoa ha evolucionado, desde hace tres cursos, en lo que hoy conocemos como Hedatze: un espacio clave para el desarrollo académico y personal del alumnado.

A lo largo del curso 2024-2025 hemos seguido ofreciendo refuerzo académico y actividades lúdicas fuera del horario lectivo. Las sesiones de refuerzo se han centrado en materias como Matemáticas, Lengua Castellana, Euskera, Inglés, Física, Biología ,Historia y Tecnología.

La asistencia ha sido notable, reflejo del interés y la necesidad del alumnado por mejorar. Esto ha sido posible gracias al compromiso de los estudiantes, la implicación del profesorado y el respaldo de las familias. Gran parte del alumnado con materias pendientes ha logrado superarlas.

Pero Hedatze va más allá del refuerzo académico: también hemos creado espacios para la creatividad, la expresión y el disfrute, con talleres temáticos que, un año más, han sido todo un éxito. Queremos agradecer a todas las personas que han hecho posible HEDATZE a lo largo de este curso 2024-2025: alumnado, profesorado, familias y colaboradores —AMPA, Kate, conserjes y personal de limpieza—.

** Datos de asistencia a Hedatze y talleres ofrecidos en Zaraobe durante el curso 2024-2025:

IKASLERIA DBHn		PARTICIPACIÓN 1º TRIMESTRE	PARTICIPACIÓN 2º TRIMESTRE	PARTICIPACIÓN 3º TRIMESTRE
DBH 1	133	103	93	89
DBH 2	119	75	68	50
DBH 3	97	38	57	39
DBH 4	89	32	21	11
TOTAL	444	248	239	189



Etxeko lanen txokoa



Mural eta graffiti



Speaking



Xake



Herri kirolak



Pickleballa-Tenisa



Ping Pong



Santo Tomasen ospakizunerako prestaketa



Euskal dantza eta gitarra





IKASENPRESA PROIEKTUA ZARAOPEN



Aurtengo ikasturtean, lehenengo aldiz, Zaraobe institutuko lanbide heziketako ikasleek, 2. Ikasturtekoek, hain zuzen ere, Ikasempresa proiektuan hartu dute parte.

Ikasempresa ITalent-ek (LHko Talentuaren Euskal Institutua) bultzatutako proiektua da, eta bere xedea ikasleek gelan enpresa txikia sortzea da, horretarako eman beharreko urratsak pixkanaka pixkanaka emanez. Proiektu honek ekintzaietza lantzen laguntzen die ikasleei, aldi berean Enplegurako ibilbide pertsonala II izeneko ikasgaiko ikaskuntza emaitzak lantzen dituztelarik.

Urratsik garrantzitsuena, proiektu honetarako gakoa, alegia, ideia da, eta ikasleek haien enpresarako ideia gara dezaten denbora dexente ematen dugu, horretarako dinamika ezberdinak erabiliz. Ideia abiapuntutzat hartuta enpresa batean funtsezkoak diren beste alderdi batzuei buruz ere hausnarketa egin behar dute ikasleek.



Proiektu honi amaiera eman genion **azoka bat** antolatuta, Ekintzaietza azoka 2025, hain zuzen ere. Lanbide Heziketako eraikinaren beheko pisuan gertatu zen Azoka. Ikasleek haien enpresak erakusteko stand-a prestatu zuten, horretarako marketing arloko hainbat elementu gelan landu genituelarik, hala nola, enpresako logotipoa diseinatu, enpresa zertan datzan ezagutzera ematen duen triptikoa ere diseinatu eta inprimatu, stand-a nola erakargarri.

Lanbide Heziketako 1. mailako ikasleek eta 4. DBHkoek ere izan zuten Azoka bisitatzeko aukera, baita stand-eant zeuden ikasleekin mintzatzeko aukera ere; horrela, 2. mailako ikasleek haien produktua edota zerbitzua modu laburrean azaltzeko parada izan zuten, hain garrantzitsua den ahozko komunikazioa landu zutelarik.

Datozen ikasturteetan ere Ekintzaietza azoka berriz ere martxan jarriko dugulakoan gaude, aipatutako Enplegurako ibilbide pertsonala II izeneko ikasgaia lantzeko modu hoberik ez baitzaigu bururatzen.



AMURRIOKO BANKU PUBLIKOAK



ZARAOBE INSTITUTUAK AMURRIOKO BANKU PUBLIKOEN IRISGARITASUNA HOBETZEN LAGUNTZEN DU.

Amurrioko Udala, Zaraobe Institutuko laguntzarekin, proiektu hezitzaile eta sozial bat jarri du martxan banku publikoen irisgarritasuna hobetzeko. Ikasturtean zehar, bost talde formatibotako ikasleek 100 maila-pieza fabrikatu dituzte, bankuen altuera handituz eta haien erabilera erraztuz, batez ere adineko edo mugikortasun urriko pertsonentzat.

Lanak hainbat lanbide-ziklotan banatu dira: piezen mekanizazioetik hasi eta soldadura, ebaketa, arakatzea eta margotzea arte, Mekanizazio eta Mantentze Elektromekanikoaren Erdi Mailako Heziketa Zikloko eta Metalezko Elementuen Fabrikazioan Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleak inplikaturik. Materialen kostua 900 euro ingurukoa izan da.

Parte-hartze aurrekontuetatik sortutako ekimen honek jarraipena izango du datorren ikasturtean beste 100 pieza berri fabrikatuz. Irisgarritasuna hobetzeaz eta indarrean dagoen araudia betetzeaz gain, soluzio honek hiri-altzariak ordezkatzeko saihesten du, iraunkortasunaren eta berrerabiltzearen alde eginez.



EL INSTITUTO ZARAOBE COLABORA EN LA MEJORA DE LA ACCESIBILIDAD DE LOS BANCOS PUBLICOS DE AMURRIO.

El Ayuntamiento de Amurrio, en colaboración con el Instituto Zaraobe, ha impulsado un proyecto educativo y social para mejorar la accesibilidad de los bancos públicos. Durante el curso escolar, estudiantes de cinco grupos formativos han fabricado 100 piezas de calce que elevan la altura de los bancos y facilitan su uso, especialmente a personas mayores o con movilidad reducida.

Los trabajos se han repartido entre distintos ciclos formativos: desde el mecanizado de piezas hasta soldadura, corte, rebabado y pintado, involucrando al alumnado de Grado Medio de Mecanizado y de Mantenimiento Electromecánico y de Formación Profesional Básica en Fabricación de Elementos Metálicos. El coste de los materiales ha sido de unos 900 euros.

La iniciativa, surgida de los presupuestos participativos, tiene continuidad prevista para el próximo curso con otras 100 piezas nuevas. Además de mejorar la accesibilidad y cumplir con la normativa vigente, esta solución evita sustituir el mobiliario urbano, apostando por la sostenibilidad y la reutilización.

IKASLAB



Aurten Ikaslab proiektuari ekin diogu Zaraoben.


Ikaslab proiektua hezkuntza-berrikuntzako ekimena da, eta helburua da ikastetxeetako ikasgelak eta ikaskuntza-metodologiak eraldatzea.

Proiektu honetarako, beraz, gela berri bat ireki dugu, espazio ireki eta argi bat izango dena, altzari mugikor eta teknologia berriei hornituak. Helburua ikasleen parte-hartzea, talde-lana eta elkarreragina sustatzea da. Aurten zebait jarduera bultzatu ditugu bertan, adibidez: Irrati tailerra-HEDATZE barruan, musikako saioak, Erasmus+ko talde-lanak, irakurketa saioak, gorputz espresio saioak eta abarrek. Hurrengo ikasturtean ildo horretan sakontzea eta espazioa gehiago erabiltzea da helburua.

Este año hemos iniciado el proyecto Ikaslab en ZARAOBE.

El proyecto Ikaslab es una iniciativa de innovación educativa cuyo objetivo es transformar las aulas y metodologías de aprendizaje de los centros. Para este proyecto, por tanto, hemos abierto una nueva sala que será un espacio abierto y claro, equipado con mobiliario móvil y nuevas tecnologías.

El objetivo es fomentar la participación, el trabajo en equipo y la interacción del alumnado. Este año hemos impulsado actividades como: el taller de radio - dentro de HEDATZE, sesiones de música, trabajos grupales de Erasmus+, sesiones de lectura, sesiones de expresión corporal, etc. Se trata de que el próximo curso se profundice en esta línea y se utilice más el espacio.



ZARAOBE ALTAXBURUA



Ikasturte honetan, Zaraobek aurrerapauso handiak eman ditu digitalizazio osasuntsu eta arduratsuaren aldeko apustuan. Eskualdeko 16 ikastetxerekin batera ALTXA BURU zentro bihurtu da, mugikorrik gabeko ikastetxea bihurtuz, ikastetxea osatzen dugun heldu guztiok eredu erreferentea izan gaitezen saiatuz. Familiei dei egiten diegu mugikorra seme alabei emateko adina atzeratzera eta gure ikastetxea arautzen duen eskola-kontseiluak onartutako kode etiko berria errespetatzera.

Altxa Burua Euskadin sortutako gizarte-mugimendu bat da, familiak, ikastetxeak eta gizarte osoa kontzientziazteko eta ahalduntzeko telefono mugikorrak eta sare sozialak haurtzaroan eta nerabezaroan behar baino lehenago eta modu desegokian erabiltzeak dituen arriskueak jakinarazteko. 2019an Gipuzkoan jaioa eta 2023aren amaieran Arabara hedatua, 2025-26 kurtso hasieran ikastaro berriak prestakuntza eta sentsibilizazioa areagotzeko martxan ipiniko ditugu, osasun-gomendioetara dispositiboan erabileraren aurrean oso presente izaten.



Durante este curso Zaraobe ha dado grandes pasos en su apuesta por una digitalización sana y responsable. Se ha convertido junto con los demás 16 centros educativos de la comarca en centro ALTXA BURU, libre de móviles, intentando que todos los-as adultos-as que lo componen seamos un modelo referente. Animando a las familias a retrasar la entrega del móvil y a respetar el nuevo código ético aprobado por el consejo escolar que regula nuestro centro.

Altxa Burua es un movimiento social surgido en el País Vasco para concienciar y empoderar a las familias, centros educativos y a toda la sociedad sobre los riesgos del uso prematuro e inadecuado de los teléfonos móviles y las redes sociales en la infancia y adolescencia. Nacido en Gipuzkoa en 2019 y extendido a Álava a finales de 2023. El nuevo curso 25.26 continuaremos con formaciones y sensibilización que nos permita acercarnos cada vez más a las recomendaciones de sanidad ante el uso de dispositivos.



EUSKARAREN EGUNA EUSKARALDIA



SAN TOMAS EGUNA

ospakizun ederra izan da aurten ere!



Aurten ere, San Tomas Eguna gogoz eta parte-hartze handiarekin ospatu dugu. Abenduaren 20an izan zen, ikasturteko azken klase eguna aprobetxatuz, eta dudarik gabe, sekulako arrakasta izan zuen.

Goiz osoan zehar ekintza ugari antolatu ziren: lehen orduetan talde-argazkiak atera genituen klasez klase, ondoren mailaka antolatutako bingo musikala, herri-kirolak, xake eta futbito txapelketak... Eta horretaz gain, giro ezin hobea sortu zuten euskal dantzek, bokatak eta musikak.

Eguna primeran igaro genuen eta amaieran sari banaketa eta otarren zozketa egin genituen, goiz borobilaria amaiera ezin hobea emanez.



Bingo musikala, herri-kirolak, xake eta futbito txapelketak... eta horretaz gain, giro ezin hobea




LITERATUR LEHIAKETA ZARAOBEKO IDAZLE XUMEAK



Ikusezinezko zamak, Raíces de viento, Maria Antonietaren itzala, El grito de los nadie, Los quebrantahuesos, The North of England edo Amour dira aurtengo Literatura Lehiaketaren irabazi duten idazleen izenburuetako batzuk. Aurten, joan den mendearen amaieran Zaraoberri Institutuko Gaztelania Mintegian hasi zen proiektua, XXIX. edizioa izan da. Beste irakasle batzuen eskutik, beste garai batean, Zuzendaritzako beste talde batekin, baina nerabe sutsu berberak. Hauek bero-beroak kontakizunak asmatzen, errealitateak irudikatzen edo sentimenduak hitzaren bidez adierazten.

Irudiak idatzizko hitzaren gainean arrakasta izan duen arren TikTok, Instagram eta antzekoak -, 12 eta 18 urte bitarteko 58 neska-mutil animatu dira bere idazlanak ematera: amodiozko poema laburrak - edo desamodiozkoak -, kezkak, nahiak, zalantza eta ilusioen kontakizunak... Guztira, 63 erredakzio, prosan eta bertsoan; euskaraz, frantsesez, ingelesez edo gaztelaniaz. Gehienak gaztelaniaz.

Institututik, orain, lan gehiago (eta hobeak) aurkeztera animatu behar diegu, batez ere, euskaraz. Gure ikasleak hizkuntzan irakurtzera eta idaztera bultzatu behar ditugu. Hori izan beharko litzateke datorren ikasturterako helburua; erakarriko dituzten irakurketak ematea, gehiago irakurriz, gehiago (eta hobeto) idatziko baitute.



Ikusezinezko zamak, Raíces de viento, Maria Antonietaren itzala, El grito de los nadie, Los quebrantahuesos, The North of England o Amour son algunos de los títulos ganadores en el concurso de literatura de este curso que ya termina. Este año ha sido la vigésima novena edición de este proyecto que empezó su andadura allá por finales del siglo pasado en el Departamento de Lengua castellana del Instituto Zaraoberri. Otros docentes, otra época, distinta dirección pero iguales entusiastas adolescentes inventando relatos, imaginando realidades o expresando sus sentimientos a través de la palabra.

A pesar del indiscutible triunfo de la imagen sobre la palabra escrita, a pesar del éxito de tiktok, instagram y similares, 40 chavales entre 12 y 18 años se han animado a entregar sus cuidadas composiciones: breves poemas de amor -o de desamor-, relatos de sus inquietudes, deseos, dudas e ilusiones... En total, 63 redacciones, en prosa y en verso; en euskera, en francés, en inglés o en castellano. La mayoría en castellano.

Desde el instituto nos toca ahora animar a que presenten más (y mejores trabajos); sobre todo, en euskera. Tenemos que motivarlos a leer y a escribir en nuestra lengua. Este debería ser nuestro objetivo para el próximo curso; proporcionarles lecturas que les atrapen porque leyendo más, escribirán más (y mejor).



Eta, urtero bezala, eskerrak eman behar zaizkie IGEko amatxoei lehiaketan parte hartzeagatik. Ekarpen eskuzabala egin ezean, ez lirateke 890 euro saritan emango. 22 ikaslek jaso zuten, IGEari esker, Aiaraldeko dendetan gastatzeko diploma eta opari-txekea.

Beraz, ikasturtea amaitu eta egun gutxira, literatura lehiaketaren 30. edizioan pentsatzen hasia dagokigu. Ikasleei istorioak asmatzearen, hiztegia zabaltzearen, sekretuak kontatzearen, sentimendu intimoak adieraztearen, ipuinak sortzearen eta beste mundu batzuk imajinatzearen garrantzia helarazten jarraitzea dagokigu. Azken batean, bizitzari buruz hausnartzea. Eta helburu horiek lortzeko modurik onena irakurtzea da. Irakurri burua argitzeko eta arima elikatzeko. Antzeko zerbait esan zuen Borgesek, literatura, irakurketa, gizakiok dugun zoriontasun-aukeretako bat dela idatzi zuenean.

LITERATURA LEHIKETA SARIDUNAK



GAZTELANIA

Olerkia

ALVARO VALDEVIRA ROJAS (1. saria) "Raíces de viento"

ENEKO CORRALES ROTAETXE "La barca de las esperanzas"

HUGO BILBAO MULLER "El grito de los nadie"

SAIOA ALAVA RUIZ "A mi hijo"

Narrativa

ALAITZ BERGANZA VALDÉS (1. saria) "Una cifra más"

GORKA OTEGI ÁLAVA "Una noche cualquiera"

RAFAEL MARIAN IACOBUTI "No lo quiero saber"

2 ZIKLOA

Narrativa

ERIKA SUÁREZ RUIZ (1. saria) "El fantasma del vinilo"

1 ZIKLOA

Poesia

AYALA HABRI MENOYO (1. saria) "Mi amiga"

EIDER GARCÍA BLANCO "A pesar de la distancia"

IHARA NERI MIMENZA "En el susurro del viento"

Narrativa

ENARA GARCÍA ABBASCAL (1. saria) "Los quebranta noches"

MARWA ZANNOUTI EL HASSANY "El espejo del aula 34"

NAROA ORUE "Dos sueños"

Y, como todos los años, toca agradecer a las amaxus del AMPA por su colaboración en el concurso. Sin su generosa aportación no se hubieran entregado 890 euros en premios. 22 estudiantes recibieron, gracias al AMPA, su diploma y su cheque regalo para gastar en comercios de Aiaraldea.

Así, que a escasos días de acabar el curso escolar, nos toca empezar a pensar en la 30ª edición del concurso de literatura. Nos toca seguir transmitiendo a los estudiantes la importancia de inventar historias, ampliar el vocabulario, contar secretos, expresar íntimos sentimientos, relatar cuentos; imaginar otros mundos. En definitiva, reflexionar sobre la vida. Y la mejor manera de alcanzar estos objetivos es leer. Leer para iluminar la mente y alimentar el alma. Algo parecido dijo Borges cuando afirmó que la lectura es una de las posibilidades de felicidad que tenemos los humanos.



EUSKARA

Narrazioan

MOHAMED BEGUI (1. saria) "Ikusezineko zamak"

ELORA GREY (Accésit) "María Antonieta En Itzala"

Olerkia

UNAX ALDAMA GONZÁLEZ (1. saria) "Maitasunaren ilunpean"

AIA FERNÁNDEZ GARMILLA "Erabakien haría"

ENGLISH

JULEN WALKER (1. saria) "The North of England"

ÁLVARO VALDELVIRA ROJAS "The perfect filter"

FRANTSESA

DOHA EZ-ZAHERY "Amour"





JUBILAZIOAK 2024-2025



ANA USATEGI

Lagun batek erretiroa hartzen duenean, zerbait hiltzen zaigu ariman. Zerbait hiltzen zaigu ariman, lagun batek erretiroa hartzen duenean.

Cuando un compañero se jubila, algo se nos muere en el alma. Algo se nos muere en el alma, cuando un compañero se jubila.

Ez da hori zehazki Alberto Cortezek kantatzen zuena, baina esaldi famatua bertsionatzeko atrebentzia izan dugu gaurkoan, gure lankide Ana Usategi, joan den abenduan erretiroa hartu zuenari, dedikatzen dizkiogun hitz hauetan. Abenduaren 20an, GAZTELANIA ETA LITERATURA irakasle honek agur esan zion ia-ia 30 urteko lanari Zaraobe institutuan. 1998tik gure idazmahaien artean egon da. Beti prest.

Lerro hauen bidez, Anari bere lan-bizitzan erakutsi duen maitasuna, erantzukizuna, konpromisoa, debozioa eta erabateko dedikazioa eskertu nahi dizkiogu. Batez ere ikasleekin. Ziur gaude ikasgelan duen pasioa, kemena, pazientzia eta ozen irakurtzeko duen gustua gogoratuko dituztela. Azken batean, dedikazio mugagabea. Irakasteko bokazioa.

Eta orain pasio hori beste batzuei transmitituko die. Seguru gozatu egingo duela bere biloba txikiei istorioak irakurtzen eta ipuinak kontatzen. Gure desiorik onenak urtarrilean hasi zen etapa honetan. Esperientzia berriak dituzu zain. Eskerrik asko, Ana.

No es exactamente así lo que cantaba Alberto Cortez, pero nos permitimos la licencia de versionar la famosa frase para comenzar esta humilde dedicatoria a nuestra compañera Ana Usategi Renedo que se jubiló el pasado diciembre. El 20 de diciembre esta profesora de LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA dijo adiós a casi 30 años de trabajo en el instituto Zaraobe. Desde 1998 ha estado entre nuestros pupitres. A pie de aula.

Con estas líneas queremos agradecerle el cariño, la responsabilidad, el compromiso y la devoción que ha demostrado durante su vida docente. Años de entrega a sus queridos adolescentes. Estamos convencidos de que recordarán su pasión en el aula, su tesón y paciencia y su gusto por la lectura en voz alta. En definitiva, dedicación inagotable. Vocación de enseñar.

Y ahora esta pasión se la transmitirá a otros. Seguro que disfrutará leyendo historias y contando cuentos a sus pequeños nietos y nietas. Nuestros mejores deseos en esta etapa que ya comenzó en enero. Nuevas experiencias te esperan, Ana. Gracias.





FELICITAS PINEDO



Felicitas Pinedo Saratxoko silleroa lowland-etara itzuliko da, Gorosabe-lenpean. Zaraobe institutuan bere koloretako soinekoak jantzi dituen 27 urteetan. “Nunca se mancó ni se amurrió”. 1998ko irailaren 1ean iritsi zen Amurrioko samaritanoei, Urduñako herritarrei, Artziniegako sevilanoei, Lekamañako abarkeroei, Murgako latosoiei, Olabazarreko zaptariei eta Kexaako dolorosoiei, Luiaondoko txolarreei eta Arespalditzako ruinei irakastera, baina ez zien inoiz londrestarrei irakatsi, Laudiokoek haien ingeles propioa dute.

Lehen beste batzuk erretiratu ziren, eta orain Feliri dagokio.
“Es una lata el trabajar, todos los días te tenés que levantar...”



Anfitrioi paregabea, zer kroketa, zer irasagar-gozokizer, zer gazta eta zer ardoa. Zer lan isilean, “egin behar bada, egin bedi, eta kito”. Sarkasmozkoa, “ez nazazu liatu”, batzuetan keinu nahigabetua, batzuetan isiltasun irribarretsua, musu gutxiko irakaslea, baina bihotz bikainekoa, oso ongi, ongi eta nahikoen artean, koadernokoa eta klarionekoa, zintzoa bezain zuzena, lan, beti lan eta lan gehiago.

“...Aparte de eso, ¡gracias a Dios!, la vida pasa felizmente si hay amor”

Feli maitea, urteak zurekin partekatzeko zortea izan dugun lankide guztiok eta belaunaldi askotako zure ikasle guztiok maitasunez gogoratuko zaitugu.
 Eskerrik asko guztiagatik, Feli! Farewell, our dear lady.



ETENGABEKO HOBEKUNTZA SISTEMA ZARAOBEN


Gune honetan, institutuak eguneroko bizitzan **etengabeko hobekuntza** eta lan ona nola integratzen dituen azalduko dizuegu.

- Lanbide Heziketa osoa **ISO 9001:2015** ziurtagiriarekin ziurtatuta dago. Azkeneko inkorporazioa Zurgintza eta Altzarigintza zikloan izan zen, aurreko ikasturtean. Horrek esan nahi du urtero ikuskapenak egin behar direla, eta horiek ziurtatu behar dutela irakasle-taldeek ongi funtzionatzen dutela heziketa-zikloetan.
- Urteko helburuek eta haiei lotutako jarduerak kontrol-segimenduak behar dituzte hiru hilean behin, desbideratzeak detektatzeko eta, hala, hobekuntzak planifikatzeko. Lan hori behar bezain zehatz egiten dugu.
- Gure talde interesatu guztiek, **ikasleengandik eta familetatik** hasita, urteroko inkesten bidez beren **gogobetetze-maila adierazteko** aukera dute. Adibidez, ondoko grafikoan Lanbide Heziketako 1. mailako ikasleen asebetetzea enpresetan egindako praktikekin, ikasturte honetan **lehenengo aldiz** egiten direnak.

Nos colamos en este espacio para contaros las **últimas novedades** referentes a cómo el instituto integra en su vida cotidiana la mejora continua y el buen hacer.

- Toda la Formación Profesional está ya certificada en **ISO 9001:2015**, la última incorporación fué la de la FP básica en el ciclo de Madera y Mueble el curso pasado. Esto implica auditorías anuales que certifican el buen funcionamiento de los equipos docentes en los diferentes ciclos formativos.
- Los objetivos anuales y sus actividades asociadas requieren de seguimientos trimestrales de control para detectar desviaciones y así poder planificar mejoras, labor que realizamos con el rigor necesario
- Todos nuestros grupos interesados, empezando por el **alumnado y las familias** tienen ocasión de **expresar su nivel de satisfacción** a través de las encuestas anuales. Por ejemplo, en el gráfico se muestra la satisfacción del alumnado de 1º de Formación Profesional con las prácticas en empresas que se realizan por primera vez este curso

OROKORRA FCT-DUAL 1. MAILA





NEREA LÓPEZ ISLA



Etxaurren ikastolan lehenengo urratsak emanda, Zaraobe institutuan hezkuntza prozesuari jarraipena eman nion. Unibertsitatera igarotzeko trantsizioan, kirol eta irakaskuntza munduekin erlazionatutako zezor ikastea neukan buruan, azkenean Jarduera Fisiko eta Kirolen Zientziak eta Lehen Hezkuntzako gradu bikoitza hautatu nuelarik. Ondoren, ezagutzak zabaltzeko asmoz, Pedagogia gradua ikasi nuen. Azken honek berriro ere Zaraobe institutura bueltatzea ahalbidetu dit, oraingo honetan ez ikasle bezala, irakasle bezala baizik. Pozik nago ibilbidea hasi nuen leku berdinerara bueltatzearekin, baita ikasleei haien bidaian laguntzeko aukera izateagatik.

ENKO TOKERO UDAETA

DBH eta Batxiler osoa Zaraoben ikasi nuen. Argi neukan teknologia mundua interesatzen zitzaidala eta batxiler teknologikoa ikasi nuen, ondoren Industria Antolakuntzako Ingeniaritza ikastea aukera nuen. Batxilergoan ikasitako guztiak balio izan dit karreraren oinarri sendo batekin hasteko. Industria mundua probatu ondoren, nire ibilbideea aldatzea erabaki nuen. Orain CAP masterra bukatzen ari naiz irakasle izateko. Duela 5 urte galdetu izan banindute, ez nukeen inoiz irakasle gisa imajinatuko, baina, egia esan, oso lanbide eskertua eta beharrezkoa dela iruditzen zait. Horrela itzuli da Zaraobe nire bizitzara. Ikasturte honetan masterreko praktikak egin ahal izan ditut institutuan, nire betiko irakasleekin, eta haien azalean jartzeko aukera izan dut. Gauza asko aldatu dira, baina erronka bat dugu orain hezkuntza sistema Garai berrietara eraldatzea.



OHOREZKO MATRIKULAK

2024-2025 ikasturteko Ohorezko Matrikulak. Zorionak! Zuen esfortzua eta dedikazioa inspirazio iturri dira guztiontzat.

MOHAMED BEGUI, PEIO PIEDRA, NEREA URQUIJO eta MARÍA OTAOLA

Matrículas de honor del curso 2024-2025! ¡Felicidades! Vuestro esfuerzo y dedicación son inspiración para tod@s.



2024-2025 PROMOZIOA



“Zorionak bihotzez, merezi duzuelako!
“ Institututik zorte on guztia opa dizuegu zuen ametsak betetzen jarraitzeko bidean”.